



Kromatografia

Pintura guztiek pigmentuak dituzte; horiek ematen diete kolorea. Eta, zer kolore lortu nahi dugun, pigmentu batzuk edo beste batzuk nahasten ditugu. Esperimentu erraz batez, ezkutuan dauden pigmentuak aurkituko dituzu!


Behar dituzu

- Kafea egiteko paperezko iragazki bat
- Arkatz bat
- Zatitxo bat zinta itsaskor
- Errotuladore bat, beltza adibidez
- Alkohola alkohol botila baten
- Baso bat




Zer egin

1. Paperezko iragazkiaren zerranda bat moztu: 4 cm zabal, eta basoa baino luzexeagoa.
2. Beheko erdiko gunean zentimetro erdiko biribil bat marraztu errotuladore beltzez.
3. Paper hori arkatzari lotu goiko ertzetik, zinta itsaskorarekin.
4. Basoan alkohol pixka bat bota.
5. Arkatza eta iragazkia irudian agertzen diren moduan kokatu. Iragazkiak alkohola ukitu behar du.
6. Segituan ohartuko zara marraztutako biribila desegiten ari dela; minutu batera, hainbat marra ikusiko duzu iragazkian. Orain bai, orain ikusten dira koloredun marrak iragazkian!



5.



6.

Zer gertatu da?

Errotuladore beltza egiteko, hainbat pigmentu erabili zituzten fabrikatzaileek. Zuk pigmentu horiek bereizi egin dituzu esperimentu honetan. Alkohola disolbatzailea da, eta kafearen iragazkia oso porotsua da. Hortaz,

alkohola paperean gora joan da, eta biribil beltzaren pigmentuak eraman ditu berekin. Pigmentu guztiak abiadura berean mugitzen ez direnez, batzuk besteak baino gorago geratu dira.

Kuxkuxeroentzat

Nondik ateratzen dituzte fabrikatzaileek pigmentuak? Harrietatik eta landareetatik!